

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2026ko uztailaren 31ko Erabakiaren laburpena; erabaki horren bidez, 2026ko ekitaldirako lan-kontrataziorako dirulaguntza Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak kofinantzatuen deialdi publikoa eta oinarriak onartu ziren

BDNS(Identif.): 924199.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/924199>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>), baita Gasteizko Udalaren webgunean ere (<http://www.vitoria-gasteiz.org>).

Lehena. Onuradunak

Gasteizko lurralde-eremuan lantokia eta jarduera ekonomikoa duten pertsona fisiko edo juridikoak, izaera pribatukoak, baldintza hauek betetzen badituzte kontratazioa hasten denetik:

- Diruz laguntzeko moduko jarduerak garatzea, zuzenean, Gasteizko udalerrian jarduera ekonomikoa duen lantoki batean.

- Zerga eta lan betebeharrak egunean izatea, baita Gasteizko Udalari dagozkionak ere.

- Ez jaso izana zigor penalik edo administrazio-zehapenik dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarrenik, eta ez egotea horretarako ezgaitzen duen ezein legeko debekuren pean (tartean direla sexuan oinarritutako diskriminazioagatik edo diskriminazio anizkoitzagatik ezarritakoak; Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onetsi zuen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1. artikuluan aipatzen dira), edo ez ezarri izana ebazpen irmoaren bidez Lan Arloko Arau Hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginak -abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia- 46.1.b) eta 46 bis 1.b) artikuluetan aurreikusitako zehapen osagarriak.

- Beste dirulaguntzarik ez jaso izana, pertsona bera kontratatzeko, Gasteizko enpresei lan-kontrataziorako laguntza ekonomikoak emateko udal programaren aurreko deialdietan.

- Baldintza horiek betetzen jarraitzea, ebazpena eman arte.

- Ondasun-erkidegoen edo elkarte zibilen kasuan, haietan partaidetza duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak joko dira onuraduntzat, eta guztiek bete beharko dituzte oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintzak. Nolanahi ere, taldea ordezkatzeko duen pertsona bat izendatu beharko da, zeinak nahikoa ahalmen izango baitu taldeari onuradun den aldetik dagozkion betebeharrak betetzeko. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea baino lehen desegiten bada elkarte, emandako dirulaguntza itzuli egin beharko da.

Kontratatuak direnek betekizun hauek bete beharko dituzte, indarrean dagoen legediak agintzen dituen gain:

- Kontratazioaren aurreko egunean Gasteizen errolatuta egotea.
- Langabezian egotea, hau da, Gizarte Segurantzaren inongo erregimenetan izena eman gabe egotea, eta Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa izena emanda eta altan egotea, kontratazio-egunaren aurre-aurreko egunean.

Bigarren. Xedea

Udalerriko langabeen lan-kontratazioa bultzatzea, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen kontratazioa faboratuz.

Hirugarren. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

Lan-kontratazioak, honako baldintza hauetan:

- Kontratuak mugagabeak izango dira, lanaldi osorako edo lanaldi partzialerako; lanaldiak gutxienez ehuneko 50ekoa izan beharko du, diruz laguntzen den epe osoan.
- 2026ko urtarrilaren 01etik 2026ko abenduaren 31ra arte egindako kontratazioak (biak barne) lagundu ahalko dira diruz.
- Kontratazioek enplegu-sorkuntza garbia ekarri beharko dute kontratazioa diruz laguntzen zaien pertsonak bertaratu aurreko 6 hilabeteetan enpresak zuen batez besteko plantilla osoaren gainean. Kontratazioaren egunean, kontratu berriak batez besteko horren gaineko igoera ekarri behar du. Betekizun hori betetzeari dagokionez, ez dira kontuan hartuko kausa hauengatik azkendu diren kontratuak: diziplinazko kaleratze bidezkoak, dimisioa, heriotza, desgaitasuna, adinagatiko erretiroa, lan-denboraren borondatezko murrizketa, langileen ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia.
- Enpresak gutxienez 12 hilabetez eutsi beharko dio dirulaguntzaren xede den kontratu mugagabeari.
- Ez da dirulaguntza bat baino gehiago emango pertsona bera kontratatzeagatik, nahiz eta eskaera enpresa edo pertsona autonomo batek baino gehiagok egin; alegia, dirulaguntza bakarra emango da, eskabidea aurkeztu den hurrenkera aintzat hartuta.

Laugarren. Oinarriak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Gasteizko Udalbatzak erabaki zuen Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorriari hasierako onespina ematea. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantza horren xedea da Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

2026ko uztailaren 31n, Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko ekitaldirako Gasteizko lan-kontratazioarako laguntza ekonomiko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak kofinantzatuen deialdiaren oinarriak onartu zituen.

Udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Bosgarren. Zenbatekoa

Deialdiaren diru-hornidura bi milioi eta hirurogeita hamazortzi mila seiehun eta hirurogeita hiru eurokoa (2.678.663,00 euro) izango da, eta partida hauen kontura egingo da: 2026ko udal aurrekontuko 0823.2411.480.15 partida, -Eskualde Plana, Lanbideren ekarpina- izenekoa (2.256.363,00 euro) eta 2026ko udal aurrekontuko 0823.2411.480.20 partida, -Eskualde Plana, Udalaren ekarpina kontratazioarako- izenekoa (422.300,00 euro).

8.000,00 euroko laguntza, lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko.

Laguntzaren azken zenbatekoak ezingo du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen ehuneko 75.

Laguntzaren zenbatekoa 10.000,00 eurokoa izango da lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko, baldin eta kolektibo hauetako pertsonak kontratatzen badira:

— Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) edo bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) jasotzen dutenak.

— 35 urtetik beherakoak.

— 45 urtetik gorakoak.

Kasu horietan, laguntzaren azken zenbatekoa ezingo da izan kontratatutako pertsonen urteko soldata-kostuen ehuneko 100etik gorakoa.

55 urtetik gorako pertsonak kontratatuz gero, laguntzaren zenbatekoa 13.000,00 eurokoa izango da lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko.

Kasu horretan, laguntzaren azken zenbatekoa ezingo da izan kontratatutako pertsonen urteko soldata-kostuen ehuneko 100etik gorakoa.

Dirulaguntzen zenbateko guztiak ehuneko 10 handituko dira kontratuak emakumeei egiten bazaizkie. Eta ehuneko 15 gehiago, iraupen luzeko langabeen kasuan. Halakotzat joko dira kontratazio-dataren aurreko 540 eguneko aldian gutxienez 360 egunez Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan edo beste enplegu-zerbitzu publikoren batean enplegu-eskatzaille gisa izena emanda egon diren langabeak.

Dirulaguntzaren azken zenbatekoak, gehikuntza hori aplikatzean, ezingo du gainditu 16.1.1. apartatuan aipatzen diren kontratuen kasuan kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen ehuneko 75, ezta 16.1.16,3 apartatuan aipatzen diren kolektiboetako pertsonen kontratuen kasuan kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen ehuneko 100 ere.

Kasu guztietan, kontratazioak lanaldi partzialekoak direnean (ehuneko 50 gutxienez, 3. oinarriaren arabera), dirulaguntza lanaldiarekiko proportzionala izango da.

Urteko soldata-kostuen kalkulua, deialdia honi dagozkionetarako, dirulaguntzaren xede den kontratua duen langilearen soldata gordinaren arabera -kontratuaren dataren ondorengo 12 hila-beteetako- zehaztuko da, enpresaren kontura diren Gizarte Segurantzako kostuak gehituta.

Enpresak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du nahitaezko dokumentazioarekin batera, eta gero justifikatu egin beharko du. Baldin eta, gerora, eskabidean adierazitakoa baino zenbateko txikiagoa justifikatzen badu enpresak, eta horrek laguntzaren kalkulua aldatzen duelarik ateratzen den kopurua benetan diruz lagundutakoa baino txikiagoa bada, jasotako dirulaguntzaren dena delako zati proportzionala itzuli beharko du, baita dagozkion interesak ere.

Seigarrena. Eskabideak aurkezteko epea

— ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek; aldez aurretik laburpen-iragarkia argitaratuko da Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen.

Deialdi honek ondoz ondoko bi eskaera-epe izango ditu:

— Lehen epea (1. fasea) ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2026ko urriaren 15era arte, egun hori barne.

— Bigarren epea (2. fasea): 2026ko urriaren 16tik 2027ko otsailaren 15era, biak barne.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 31

*Ekonimia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ